

Euskaraz irakurtzea helburu

Euskaraz irakurtzea helburu Ekainaren 22a arte martxan izango da ' Irakurri, gozatu eta oparitu ' ekimena

Irene Elorza

Maxixatzen Euskara Elkarteak Irakurri, Gozatu eta Oparitu ekimena berriro abian jarri du. Oraingo honetan, Topagunea Euskara Elkartearen Federazioarekin elkarlanean ariko da irakurzaletasuna sustatzeko egitasmoan.

Irakurri, Gozatu eta Oparitu egitasmoa Hego Euskal Herriko 14 herritan gauzatuko da, tokian tokiko euskara elkarteetan, udal liburutegien eta liburu dendeen elkarlanari esker. Honako elkarteek hartuko dute parte: Gipuzkoan, Maxixatzen (Azkoitia), Noaia (Usurbil), Goibeko (Elgeta), Jardun (Bergara), Zintzo Mintzo (Urretxu-Zumarraga); Bizkaian, Bai Esan (Santurtzi), Berbots (Erandio), Asapala (Mahatserria), Ganoraz (Igorre), Berbaro (Durango), Euskal Birusa (Ermua); eta Nafarroan, Bierrik-Kima (Altsasu) eta Aizpea-Pikuxar (Iruztzun).

Irakurzaletasuna sustatzeaz gain, bestelako helburuak ere lortu nahi ditu Topaguneak ekimen honen bidez: batetik, Euskara Elkarteetako bazkide diren euskaltzaleak liburutegi publikoen erabiltzaile aktibo bihurtzea; era askotako eragile publikoen eta pribatuaren elkarlana sustatzea, eta eragile horien guztien arteko harreman sarea euskaraz hedatzea, bestetik; eta, azkenik, ekarpena egin nahi diote euskarazko liburugintzari, liburuaren ekoizpena eta salmenta bultzatuz.

Ehun liburu aukeran

Aizkibel Udal Liburutegiko apal bitan dauden 100 liburuaren artean aukeratu dezake irakurleak. Maileguan hartu, etxera eraman eta 15 egun ditu liburua irakurtzeko. Liburua itzultitakoan, liburuaren inguruko iritzia jasotzeko fitxa sinple bat bete beharko da. Fitxa betetakoan, irakurleak deskontu txartela jasoko du liburua besteren bati oparitzeko.

Egitasmoko 100 liburuak zortzi sailetan banatuta daude. Batetik, Azkoitiko aukerak izeneko atala dago. Bertan, azkoitiarrek idatzitako hamar liburu daude aukeratzeko moduan. Adin tarteak kontuan hartutako liburu aukeraketa ere badago, besteak beste.

Azkoitian, Iratzar eta Lujan liburu dendetan erosi daitezke liburuak, %25eko deskontuarekin. Maxixatzen elkarteetako bazkideek %25eko beste deskontu bat ere izango dute, liburuak erdi prezioan eskuratuz. Nahi izanez gero, oparia eta lagunaren helbidea liburu dendan utzi eta Maxixatzeneko kideek eramango diote etxera.